

## **BALKOIAK ETA LEIHOAK EDERTZEKO 3. LEHIAKETAREN OINARRIAK**

Eibarko Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, "Balkoiak eta leihoak edertzeko 3. lehiaketa" deitu du.

### **1. LEHIAKETAREN XEDEA**

Herritarren parte hartzearen bidez, Eibarko ingurumen kalitatea eta irudia hobetzea. Landareek eta loreek hiriko ingurune atseginagoa eta ederragoa lortzen laguntzen dute. Ekimenarekin hiria apaintzeko ohitura on hori herritarren artean zabaldu nahi da.

### **2. PARTE-HARTZAILEAK**

Lehiaketa honetan Eibarko hiriguneko etxebizitzetan bizi den edonork parte hartu ahal izango du. Beharrezkoa izango da lehiaketaren aurretik izena ematea.

### **3. IZEN EMATEA**

Izena emateko epea: 2021eko maiatzaren 26tik ekainaren 18ra (biak barne)

Izena emateko bi aukera daude:

- Maiatzaren 26an, Untzaga plazan izango den "FurgoBaratzan" (10:00-13:00). Etxebizitza bakoitzeko lore bakarra banatuko da, hauek amaitu arte. Inprimakia beteta ematea nahitaezkoa izango da eta lorea jasotzen duenak bere NANA erakutsi beharko du.
- Eibarko Udalaren webgunean eskuragarri egongo den inprimaki elektronikoa betez.

Izen-ematea egitean, parte-hartzaile bakoitzari bereizgarri bat emango zaio. Bereizgarri hori kaletik ikusteko moduko leku batean erakutsi beharko da, eta epaimahaiak balkoia edo leiho parte-hartzailea identifikatzeko balioko du. Elektronikoki inskribatutako parte-hartzaileen kasuan, bereizgarri hori bidaliko zaie beren etxeetara.

Kategoria bakar bat ezarriko da: balkoi edo leiho hoberena.

### **4. OINARRIAK**

Epaimahaiaren iritziz aurrerago adierazitako balorazio-irizpideak ondoen betetzen dituen balkoia edo leihoa sarituko da.

Landare edo lore biziak erabiliko dira edertzeko.

Balkoiak edo leihoak kaletik ikusteko moduan egon beharko dira; izan ere, epaimahaiak kaletik baloratuko ditu, etxeetara igo gabe.

Parte-hartzaileek balkoia edo leihoa edertzeko askatasuna izango dute, beti ere ingurua errespetatuz (auzokideak, kalea...) eta segurtasuna bermatuz. Gogoratu Eibarren indarrean dagoen ordenantzak debekatzen duela lorontziak eta lorapoteak kalera jausi ez daitezen behar den bezala lotzeke jartzea; barandaren kanpoko aldetik horrelakoak eskegitzea ere debekatuta dago. Landareak edo loreak ezin dira jarri apaintasuna apurtuko luketen latetan edo ontzietan. Loreei edo landareei ura botatzerakoan kontu handia ipini behar da urak kalera ihes egin ez dezan. (Ikusi "Hainbat Udal Ordenantza aldatzeko Ordenantza, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/CE Zuzentaraura Egokitzea", 30.artikulua)

Balkoi edo leiho parte-hartzailea kaletik ikusteko modukoa izango da eta bereizgarria ikusteko moduan eduki beharko du epaimahaiak identifika dezan uztailaren 1etik 16ra arte. Baldintza hauek betetzen ez badira, ez da balkoi edo leihoa baloratuko eta, ondorioz, deskalifikatu egingo da.

## 5. EPAIMAHAIA

Epaimahaia lorategigintzan edo hiri-edertze lanetan aditua den batek eta udal ordezkari batek osatuko dute.

Epaimahaiak balkoi eta leihoen balorazioa uztailleko lehen hamabostaldian egingo du.

Epaimahaiak hautaketa eztabaidak eta bozketak atek itxitako bileretan egingo ditu.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

## 6. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahai kalifikatzaileak irizpide hauetan oinarrituko du bere puntuaketa:

- Kanpoaldetik ikusgai izatea.
- Konposizioaren originaltasuna eta sormena.
- Apainketaren kalitatea.
- Apainketaren harmonia eta diseinua.
- Konplexutasuna.

## 7. SARIAK

Bi sari mota egongo dira.

- Herrian: lehen saria 200 euroko bono bat izango da eta bigarrena 150 euroko bono bat, biak Eibarko Merkataritza Gune Irekiko kide diren saltokietan erabiltzeko.
- Eskualdean: 250 euroko bonoa, irabazleak bere herriko saltokietan erabil dezan.

Eskualde mailako saria eta herri mailako saria bateraezinak dira.

Epaimahaiaren erabakiaren adierazpena eta sari banaketa uztaileko lehen hamabostaldian egingo dira. Parte-hartzaileei aurrez jakinaraziko zaie noiz eta non egingo den sari banaketa.

Sariak banatu gabe gera daitezke, epaimahaiak erabakitzen badu balkoi edo leiho parte-hartzaileek ez dutela gutxienezko kalitatezko maila betetzen.

## 8. EGUTEGIA

- **Izena emateko epea:** 2021eko maiatzaren 26tik ekainaren 18ra (biak barne).
- **Bereizgarria 2021eko uztailaren 1etik 16ra egon behar da ikusgai.** Baldintza horiek bete ezean, balkoia edo leihoa ez da baloratuko, eta, beraz, deskalifikatu egingo da.
- **Epaimahaiak** 2021eko uztaileko lehen hamabostaldian **baloratuko du balkoia edo leihoa.**
- **Sari-banaketa** uztailaren 12tik 16ra egingo da.

## 9. KUDEAKETA-ERAKUNDEA

Edozein argibide edo kontsulta nahi izanez gero, interesatuak Eibarko Udaleko Ingurumen Sailarekin harremanetan jarri ahal izango dira 943 70 84 telefonoan edo [ingurumena@eibar.eus](mailto:ingurumena@eibar.eus) helbidean.

## 10. OHARRAK

Udaleko Ingurumen Saila telefonoz edota e-mail bitartez harremanetan jarriko da irabazleekin.

Parte-hartze hutsagatik, partaideak udalari bere identitatea (izena eta bi abizenak) eta saritutako balkoi edo leihoaren argazkia argitaratzeko baimena ematen dio udalari, lehiaketaren emaitzak publiko orokorrari jakinarazteko udal webgunearen ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) eta prentsa ohar edo antzekoen bitartez.

Izena emateak berekin dakar lehiaketaren oinarriak eta epaimahaikideen erabakia onartzea. Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da.